

## **EH Bildu talde politikoa**

### **Grupo político EH Bildu**

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -  
20003 Donostia

## **GUTXIENeko HORNIDURA ENERGETIKOA BERMATZEARI BURUZKO KONTROL MOZIOA**

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2022ko irailaren 19an Pertsonen Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

### **JUSTIFIKAZIOA**

2008az geroztik okerrera egin dute pobrezia energetikoaren inguruko adierazleek eta egoera gero eta zailagoa da prezioen gorakadaren ondorioz. Milaka dira etxean berokuntza edo hozte-sistema egokiak lortzeko gastuei aurre egiteko gaitasun ekonomikoa ez duten herritarrak eta, zantzu guztien arabera, egoera are larriagoa izango da datozen hilabeteotan, hainbat adituk eta ordezkari publikok adierazi duten bezala.

Aitzitik, arazo horri aurre egiteko artikulatu diren politikak ez dira nahiko, oso motz geratzen dira, kontinuitateak direlako eta ez diotelako gaur egungo egoerari erantzuten, betiko errezetak erabilia aurrekaririk gabeko egoera baten aurrean.

Adituek negu gogor bat aurreikusi dute arlo sozio-ekonomikoari dagokionez. Estatistikak ere egoera okertzen ari direla dio. Esate baterako, ekainean argitaratu zen Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) egindako 2021eko Bizi Baldintzen Inkestaren arabera, EAEko biztanleen %16ak arazoak ditu hilaren amaierara iristeko: 2020an baino bi puntu gehiago. Halaber, Gurutze Gorriak argitaratutako lan batean ohartarazi digu bertan arreta jasotzen duten familien %75ak ezingo duela bere etxebizitzan tenperatura egokia mantendu, bereziki neguan, diru-sarreraren erdia baino gehiago etxebizitza ordaintzeko erabiltzen duelako. Bestetik, UNICEF eta Save the Children erakundeek adingabeen pobrezia areagotzeaz hitz egin digute. Testuinguru horretan, oinarriko horniduren prezioak (gasolina, gasa, elektrizitatea...) familien zailtasunen eskutik hazten doaz.

Jakinda ekoizpen, kontsumo eta energia ereduak eraldatzeko egiturazko neurriak behar ditugula, bien bitartean, gertu ditugun eta iragarrita dauden larrialdi egoerei behin-behineko soluzioak jartzeko intentzioaren inguruan interpelatu dugu delegatua iraileko batzordeetan. Haren iritziz, Udal Gobernuak 2019an diseinatutako neurriak gaur egungo egoerari erantzuteko nahikoak dira; hau da, indarrean dauden dirulaguntzen (GLL zein udal dirulaguntzak) aurrekontua igotzea demanda handitzen bada.

Jakinda beharra duten pertsona asko diru-sarrerak bermatzeko sistematik kanpo geratzen direla gaur egungo bizi-egoeretara egokitzen ez diren baldintza batzuetatik

## **EH Bildu talde politikoa**

### **Grupo político EH Bildu**

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -  
20003 Donostia

(Jaurlaritzaren 2018ko pobrezia-inkestaren datuen arabera, EAEn 192.000 pertsona daude bazterketa-arriskuan, eta pertsona horien %30 diru-sarrerak bermatzeko sistematik kanpo geratzen dira) eta negu honetarako dauden aurreikuspen sozio-ekonomiko larriak, ezin dugu ulertu Udal Gobernuaren jokaera.

Izan ere, erakunde publikoek esfortzu handiagoa egin beharko lukete, inor gutxieneko hornidura energetikorik gabe ez geratzeko.

Hortaz, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

### **KONTROL MOZIOA**

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari beharrezko hornidura energetikoa bermatu ezin duten eta ohiko dirulaguntzetatik (Gizarte Larrialdietarako Laguntzak edo Lan Partekatuen Plana) kanpo gelditzen diren herritarren egoerari erantzuna emateko aukerak edo dirulaguntza alternatiboak planteatzen dituzala, neguan inor gutxieneko hornidura energetikorik gabe gera ez dadin.

Donostian, 2022ko irailaren 22an

Olaia Duarte López  
**EH Bildu udal taldeko zinegotzia**